

**KONTU-HARTZAILETZA****NAHITAEZKO FINANTZA KONTROL IRAUNKORRAREN TXOSTENA, EZ  
PLANIFIKAGARRIA****GAIA: 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO TXOSTENA**

Esan daiteke, abenduaren 31n, ixten den aurrekontuaren gauzatze maila aztertzeke eragiketa multzoa dela Aurrekontuaren likidazioa, hauxe da, helburua dela aztertzea aurrekontuan onartutako gastuetarako kredituek zein neurritan eman duten obligazioak aintzatesteko eta ordaintzeko bide, eta aldi berean aztertzea sarreraren aurreikuspenek zein neurritan eman duten eskubideak aintzatesteko eta haiek biltzeko bide.

Aurrekontua likidatzeko eragiketa horiek aurreikusita daude Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46. artikuluan eta hurrengoetan, 500/90 Errege Dekretuan eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko irailaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 3., 11. eta 12. artikuluetan.

Hondarribiko Udalaren 2022ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa eratu ondoren, 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua xedaturikoarekin bat etorritik, **TXOSTEN** hau egin du Kontu-hartzailatza honek.

**APLIKAGARRIA DEN LEGERIA.**

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46. artikulua eta hurrengoak
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, toki erakundeetan aplikagarria den Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onartzen duena.
- 500/1990 Errege Dekretuak, apirilaren 20koak, Aurrekontuen gaitan Toki Ogasunen Arautzailea den abenduaren 28ko 39/1998 Legearen Seigarren Tituluko lehenengo Kapitulua garatzen duenak, dituen 89. artikulurik 105. artikulura..
- Gipuzkoako Toki entitateen aurrekontu egitura eta kontabilitate publikoko plan orokorra onartzen duen Foru Dekretua.

**OHARPEN JURIDIKOAK**

**LEHENA:** Hauxe xedatzen du 21/2003 Foru arauaren 46. artikulua "Ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta aintzatetsitako obligazioei dagokienez".

Ekitaldiko aurrekontu-likidazioa ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak osatuko du. Honako hauek osatuko dute:

- Laburpen Kontuak.
- Ekitaldiko sarreraren egoera.
- Ordainketa kredituen gastuen egoera.
- Konpromiso kredituen gastuen egoera.

Gainera, honako dokumentu hauek izango ditu likidazioak:

- Itxitako aurrekontuen aldaketen egoera, kobratu beharreko eskubideei eta ordaindu beharreko obligazioei dagokienez ekitaldian gertatutakoak adierazita.

- Aurrekontuan ez dauden zordunen eta hartzekodunen saldoen egoera, aplikatu gabeko ordainketak eta sarrerak barne.
- Ekitaldiaren amaieran dagoen hartzekodunen guztizko saldoa zor ez diren diru sarreraren itzulketagatik.
- Ekitaldiko diruzaintza kontua.
- Kontaketaren akta ixtean, funtsek kontuetan eta haien berdinkatzeetan izan duten gauzatze fisikoa erakutsiz.

Azkenik, aurrekontuaren likidazioarekin honako hauek aztertu beharko dira:

- Kobratzeko dauden eskubideak, kitatzen denaren hurrengo ekitaldian haiek gauzatzea zaila edo ezinezkoa denean.
- Finantzaketa desbideratzeak lotutako sarrerak dituzten gastuetan.
- Ekitaldiko aurrekontu emaitza, likidatzen den aurrekontuak eta itxitako aurrekontuek sortutakoa bereizita.
- Diruzaintzako soberakina ekitaldia ixtean.

**BIGARRENA.** - Gastuen eta Sarreraren Egoerak likidatzeko eragiketak egin ondoren, zenbateko likidoan laburbildu daitezke erabilitako udal Aurrekontua erakusten duten magnitudeak. Indarrean dagoen araudiak eskatutako dokumentazioa biltzen du espedientearen tramitazioak eta laburbilduta honako aurrekontu magnitude hauek ditu Likidazioak:

## AURREKONTUAREN KITAPENAREN EGOERA, KAPITULUKA LABURBILDUTA:

### 1. koadroa. Gastu eta sarreraren aurrekontu likidazioaren egoera

| 1 - G. ARRUNTA (+ SARTUTAKO KREDITUIAK)        |                       |                      |                       |                        |                      |                      |                      |                      |                     |
|------------------------------------------------|-----------------------|----------------------|-----------------------|------------------------|----------------------|----------------------|----------------------|----------------------|---------------------|
| Kapitulua                                      | Hasierako aurrek.     | Behin bet. Aurrek.   | Atxikipean            | Baimendua              | Xedatua              | Aintzat. Oblig.      | Ordainketa garbiak   | Eskura               | Oblig - ordaink.    |
| 1 Pertsonal gastuak                            | 7.959.020,94          | 8.182.833,79         | 0,00                  | 7.000.165,48           | 7.000.165,48         | 6.994.393,48         | 6.979.860,48         | 1.182.668,31         | 14.533,00           |
| 2 Ondasun arruntak eta zerbitzuen gastuak      | 9.445.587,81          | 12.514.525,39        | 18.277,05             | 10.290.088,86          | 10.290.088,86        | 8.993.827,95         | 7.946.031,86         | 2.206.159,48         | 1.047.796,09        |
| 3 Gastu finantzarioak                          | 140.500,00            | 140.500,00           | 0,00                  | 108.767,02             | 108.767,02           | 108.767,02           | 108.028,08           | 31.732,98            | 738,94              |
| 4 Transferentzia arruntak                      | 4.005.433,86          | 5.358.831,82         | 0,00                  | 4.084.684,51           | 4.084.684,51         | 3.581.508,76         | 3.416.300,53         | 1.274.147,31         | 165.208,23          |
| 5 Kreditu orokorra eta bestelako ezustekoak    | 154.267,39            | 122.171,15           | 0,00                  | 0,00                   | 0,00                 | 0,00                 | 0,00                 | 122.171,15           | 0,00                |
| 6 Inbertsio errealek                           | 2.635.115,00          | 15.133.239,74        | 0,00                  | 9.064.041,61           | 8.762.940,80         | 6.462.451,88         | 5.736.133,84         | 6.069.198,13         | 726.318,04          |
| 7 Kapital transferentziak                      | 3.600,00              | 441.499,45           | 0,00                  | 420.372,17             | 420.372,17           | 61.240,16            | 44.186,38            | 21.127,28            | 17.053,78           |
| 8 Finantza aktiboak                            | 20.000,00             | 20.000,00            | 0,00                  | 0,00                   | 0,00                 | 0,00                 | 0,00                 | 20.000,00            | 0,00                |
| <b>1 - G. ARRUNTA (+ SARTUTAKO KREDITUIAK)</b> | <b>24.363.525,00</b>  | <b>41.913.601,34</b> | <b>18.277,05</b>      | <b>30.968.119,65</b>   | <b>30.667.018,84</b> | <b>26.202.189,25</b> | <b>24.230.541,17</b> | <b>10.927.204,64</b> | <b>1.971.648,08</b> |
| Kapitulua                                      | Hasierako aurrekontua | Behin betiko aurrek. | Aintzat. Esk. garbiak | Baliogabet. eskubideak | Dirubilketa garbia   | Itzulketak           | Kobratzeko dagoena   |                      |                     |
| 1 Zerga zuzenak                                | 7.632.180,00          | 7.632.180,00         | 7.669.339,57          | 74.496,38              | 7.095.266,85         | 19.950,39            | 574.072,72           |                      |                     |
| 2 Zeharkako zergak                             | 550.000,00            | 550.000,00           | 560.546,48            | 95.790,79              | 419.290,85           | 82.028,61            | 141.255,63           |                      |                     |
| 3 Tasak eta bestelako sarrerak                 | 2.144.278,00          | 2.144.278,00         | 2.634.058,22          | 102.144,46             | 2.249.239,46         | 12.507,56            | 384.818,76           |                      |                     |
| 4 Transferentzia arruntak                      | 13.514.243,00         | 13.514.243,00        | 14.753.381,43         | 5.276,11               | 14.131.082,92        | 5.276,11             | 622.298,51           |                      |                     |
| 5 Ondare sarrerak                              | 20.500,00             | 20.500,00            | 12.860,74             | 0,00                   | 12.860,74            | 0,00                 | 0,00                 |                      |                     |
| 6 Inbertsio errealek besterenganatzeak eta     | 0,00                  | 534.968,47           | 564.584,71            | 1.572,09               | 535.296,39           | 1.572,09             | 29.288,32            |                      |                     |
| 7 Kapital transferentziak                      | 7.000,00              | 7.000,00             | 91.897,33             | 0,00                   | 21.328,67            | 0,00                 | 70.568,66            |                      |                     |
| 8 Finantza aktiboak                            | 20.000,00             | 17.035.107,87        | 0,00                  | 0,00                   | 0,00                 | 0,00                 | 0,00                 |                      |                     |
| 9 Finantza pasiboak                            | 475.324,00            | 475.324,00           | 0,00                  | 0,00                   | 0,00                 | 0,00                 | 0,00                 |                      |                     |
| <b>2 - I. ARRUNTA</b>                          | <b>24.363.525,00</b>  | <b>41.913.601,34</b> | <b>26.286.668,48</b>  | <b>279.279,83</b>      | <b>24.464.365,88</b> | <b>121.334,76</b>    | <b>1.822.302,60</b>  |                      |                     |

## AURREKONTU EMAITZA

Denboraldi batean lortutako aurrekontu baliabideak (AEG) denboraldi bereko aurrekontu gastuak (AOG) finantzatzeko zein neurritan aski izan diren azaltzen duen magnitudea da aurrekontu emaitza. Horrenbestez, aurrekontu eragiketengatik ekitaldian izandako finantzaketa superabita edo defizita neurtzen du aurrekontu emaitzak.

21/2003 Foru Arauaren 48. artikulua xedaturikoaren arabera, *“Ekitaldiko indarreko Aurrekontuko aurrekontu eragiketen emaitza **ekitaldian zehar aintzatetsitako eskubideen eta denboraldi berean zehar aintzatetsitako obligazioen arteko** kendura izango da”*. Era berean, haxe dio PGCAk *“Aurrekontu emaitza, hala egokituz gero, gorantz **doitu beharko da**, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioen arabera. Era berean, aurrekontu emaitza, hala egokituz gero, finantzaketa lotuarekin egindako gastuen ondoriozkoak diren ekitaldiko finantzaketa desbideratzeen arabera doituko da. Alde horretatik, finantzaketa desbideratze positiboek aurrekontu emaitza txikituko dute, eta negatiboek, berriz, handitu”*.

Doikuntza horiei dagokienez, eta lehenengoari dagokionez, 2022ko ekitaldian aurrekontu-aldaketak finantzatu dira gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakinarekin. Aldaketa horien ondorioz, 8.433.636,61 euroko obligazioak aitortu dira.

Gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakina aurrekontu aldaketen finantzazio iturri moduan erabiltzeari dagokionez, Kontu-hartzailetza honek errepikatzen du 2022 ekitaldian egindako finantza kontrolaren txostenak, berariaz hau esaten dutenak:

*“Aurrekontu aldaketak egiteko Diruzaintzako gerakina erabili behar bada zuhurtzia handiz egin behar da, aipaturiko zerga arauak ez betetzea saihesteko, eta kontuan izanik erabilitako zenbatekoa handia balitz, ziurrenik desoreka eta/edo Gastu Araua ez betetzea ekarriko lukeela. Gogoratu behar da desoreka horiek ekarriko luketela, azken neurri gisa, dagokion Plan Ekonomiko Finantzarioa egitea”*.

Gainera, gogoratu behar da aurrekontu aldaketak finantzatzeko diruzaintzako gerakina erabiltzeak izango lukeen inpaktuari buruz Ogasun Ministerioak bidalitako oharra. Hor berariaz hau jasotzen da:

*“Toki Erakundeei eskatzen zaie ahalik eta zuhurtzia handienaz jokatzeko aurrekontu aldaketak finantzatzeko gastu orokorretarako diruzaintza gerakina erabiltzerakoan, Herri Administrazio guztiek bete beharreko zerga arauak betetzeko. Gehienbat ez bada, zenbaitetan egiturazkoak izan daitezkeen gastu korronteen finantzazioari aurrekontu aldaketen bidez eransten zaion urtean sortutako baliabidea”*.

Lotutako finantzazioa duten gastuetatik etorritako ekitaldiko finantzazio debideratzeei dagokienez, desbideratzea positiboa bada, aurrekontu emaitza murriztu egingo du, sortutako sarrerak (aintzatetsitako eskubideak) egiaz egindako gastuari (aintzatetsitako obligazioak) dagozkionak baino handiagoak baitira, eta horrek fikziozko suberbita sortuko bailuke ekitaldi horretan. Negatiboa baldin bada, aurrekontu emaitza handitu egingo du, sortutako sarrerek ez baitute egindako gastua estali, eta horrek fikziozko defizita eragingo du ekitaldi horretan. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze positiboak 611.825,06 eurokoak dira (doikuntza negatiboa). Bestalde, ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze negatiboak 66.789,63 eurokoak dira (doikuntza positiboa).

## 2 Koadroa. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa desbideratzeak

| LANBIDE PLANA 2021 EJ                   |                          |              | DESVIACIONES DE FINANCIACIÓN |                            |              |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|-----------------------------------------|--------------------------|--------------|------------------------------|----------------------------|--------------|---------|------------|------------|---------------|---------------|----------------------------------------|------------|------------|----------------------------------------|
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2021/12/31n |              | FK 2021 | DR 2021    | AE 2021    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 86.776,39                | 99.292,62    | 87,394602%                   | 86.776,39                  | 99.292,62    | 87,39%  | 47.731,96  | 2.629,94   | 47.731,96     | 2.629,94      | 45.433,53                              | 45.433,53  | 0,00       | 45.433,53                              |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2022/12/31n |              | FK 2022 | DR 2022    | AE 2022    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 82.893,03                | 95.994,56    | 86,351800%                   | 82.893,03                  | 95.994,56    | 86,35%  | 35.161,07  | 93.364,62  | 82.893,03     | 95.994,56     | -45.460,96                             | 0,00       | -45.460,96 | 0,00                                   |
| LANBIDE PLANA 2022 EJ                   |                          |              |                              |                            |              |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2022/12/31n |              | FK 2022 | DR 2022    | AE 2022    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 83.486,80                | 171.859,58   | 48,578496%                   | 83.486,80                  | 171.859,58   | 48,58%  | 44.248,00  | 1.361,71   | 44.248,00     | 1.361,71      | 43.586,50                              | 43.586,50  | 0,00       | 43.586,50                              |
| LURZORUAREN UDAL ONDAREA                |                          |              |                              |                            |              |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2020/12/31n |              | FK 2020 | DR 2020    | AE 2020    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 799.399,86               | 799.399,86   | 100,000000%                  | 799.399,86                 | 799.399,86   | 100,00% | 799.399,86 | 31.553,55  | 799.399,86    | 31.553,55     | 767.846,31                             | 767.846,31 | 0,00       | 767.846,31                             |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2021/12/31n |              | FK 2021 | DR 2021    | AE 2021    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 978.108,33               | 978.108,33   | 100,000000%                  | 978.108,33                 | 978.108,33   | 100,00% | 178.708,47 | 22.302,51  | 978.108,33    | 53.856,06     | 156.405,96                             | 156.405,96 | 0,00       | 924.252,27                             |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2022/12/31n |              | FK 2022 | DR 2022    | AE 2022    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 1.542.693,04             | 1.542.693,04 | 100,000000%                  | 1.542.693,04               | 1.542.693,04 | 100,00% | 564.584,71 | 1.936,00   | 1.542.693,04  | 55.792,06     | 562.648,71                             | 562.648,71 | 0,00       | 1.486.900,98                           |
| JAIZKIBELEKO DORREAK PROIEKTUA EJ       |                          |              |                              |                            |              |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2020/12/31n |              | AE 2021 | DR 2020    | AE 2020    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 63.986,00                | 123.117,48   | 51,97%                       | 63.986,00                  | 123.117,48   | 51,97%  | 21.328,67  | 0,00       | 21.328,67     | 0,00          | 21.328,67                              | 21.328,67  | 0,00       | 21.328,67                              |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2021/12/31n |              | FK 2021 | DR 2021    | AE 2021    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 63.986,00                | 123.117,48   | 51,97%                       | 63.986,00                  | 123.117,48   | 51,97%  | 0,00       | 0,00       | 21.328,67     | 0,00          | 0,00                                   | 0,00       | 0,00       | 21.328,67                              |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2022/12/31n |              | FK 2022 | DR 2022    | AE 2022    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 63.986,00                | 118.340,62   | 54,07%                       | 63.986,00                  | 118.340,62   | 54,07%  | 42.657,33  | 118.340,62 | 63.986,00     | 118.340,62    | -21.328,67                             | 0,00       | -21.328,67 | 0,00                                   |
| ARRISTUETA DIRULAGUNTZA EJ              |                          |              |                              |                            |              |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2021/12/31n |              | FK 2021 | DR 2021    | AE 2021    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 10.825,50                | 17.684,15    | 61,215835%                   | 10.825,50                  | 17.684,15    | 61,22%  | 5.412,75   | 0,00       | 5.412,75      | 0,00          | 5.412,75                               | 5.412,75   | 0,00       | 5.412,75                               |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2022/12/31n |              | FK 2022 | DR 2022    | AE 2022    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 10.825,50                | 17.684,15    | 61,215835%                   | 10.825,50                  | 17.684,15    | 61,22%  | 0,00       | 0,00       | 5.412,75      | 0,00          | 0,00                                   | 0,00       | 0,00       | 5.412,75                               |
| NORMALIZATZEKO PLANA 2021-2022          |                          |              |                              |                            |              |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2021/12/31n |              | FK 2021 | DR 2021    | AE 2021    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETAK  | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 5.065,00                 | 99.641,50    | 5,083223%                    | 5.065,00                   | 99.641,50    | 5,08%   | 3.039,00   | 99.641,50  | 3.039,00      | 99.641,50     | -2.026,00                              | 0,00       | -2.026,00  | -2.026,00                              |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2022/12/31n |              | FK 2022 | DR 2022    | AE 2022    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETAK  | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 4.599,00                 | 99.641,50    | 4,615547%                    | 4.599,00                   | 99.641,50    | 4,62%   | 1.560,00   | 0,00       | 4.599,00      | 99.641,50     | 1.560,00                               | 1.560,00   | 0,00       | 0,00                                   |
| AUNTZIBIKAR HEZEGUNEA BERRESKURATZEA EJ |                          |              |                              |                            |              |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
| PROIEKTU KODEA                          | Hasierako Aurreikuspenak |              | FK teorikoa edo hasierakoa   | Aurreikuspenak 2022/12/31n |              | FK 2022 | DR 2022    | AE 2022    | PILATUTAKO AE | PILATUTAKO AO | EKITALDIKO FINANTZAZIO DESBIDERAKETA K | POSITIBOAK | NEGATIBOAK | PILATUTAKO FINANTZAZIO DESBIDERAKET AK |
|                                         | SARRERAK                 | GASTUAK      |                              | SARRERAK                   | GASTUAK      |         |            |            |               |               |                                        |            |            |                                        |
|                                         | 10.830,00                | 14.440,00    | 75,000000%                   | 10.830,00                  | 14.440,00    | 75,00%  | 4.029,85   | 0,00       | 4.029,85      | 0,00          | 4.029,85                               | 4.029,85   | 0,00       | 4.029,85                               |

Aipatutako doikuntza horiek egin ondoren, honakoa da aurrekontu emaitza:

### 3. Koadroa. Aurrekontu emaitza doitua

| AURREKONTU EMAITZA                                                                                 |                                  |                                   |                                       |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------|-----------------------------------|---------------------------------------|
| KONTZEPTU AK                                                                                       | AINZTETSITAKO ESKUBIDE GARBIAK   | AINZTETSITAKO OBLIGAZIO GARBIAK   | ARIBID. EKITAL. AURREKONTU EMAITZA    |
| a) Eragiketa arruntak                                                                              | 25.630.186,44                    | 19.678.497,21                     | 5.951.689,23                          |
| b) Kapital eragiketak                                                                              | 656.482,04                       | 6.523.692,04                      | -5.867.210,00                         |
| c) Finantza aktiboak                                                                               | 0                                | 0                                 | 0                                     |
| d) Finantza pasiboak                                                                               | 0                                | 0                                 | 0                                     |
| <b>1. UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA (1=a+b+c+d)</b>                                          | <b>26.286.668,48</b>             | <b>26.202.189,25</b>              | <b>84.479,23</b>                      |
| KONTZEPTU AK                                                                                       | AINZTETSITAKO ESK. DEUSEZTATZE A | AINZTETSITAKO OBLI. DEUSEZTATZE A | EKITALDI ITXIETAKO AURREKONTU EMAITZA |
| a) Eragiketa arruntak                                                                              | 189.721,82                       | 0                                 | -189.721,82                           |
| b) Kapital eragiketak                                                                              | 16.526,29                        | 0                                 | -16.526,29                            |
| c) Finantza aktiboak                                                                               | 0                                | 0                                 | 0                                     |
| d) Finantza pasiboak                                                                               | 0                                | 0                                 | 0                                     |
| <b>2. EKITALDI ITXIETAKO AURREKONTU EMAITZA (2=a+b+c+d)</b>                                        | <b>206.248,11</b>                | <b>0</b>                          | <b>-206.248,11</b>                    |
| <b>3. AURREKONTU EMAITZA DOIKUNTZAK BAINO LEHEN (1+2)</b>                                          |                                  |                                   | <b>-121.768,88</b>                    |
| <b>DOIKUNTZAK :</b>                                                                                |                                  |                                   |                                       |
| a) Gastu Orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako aintzatsitako obligazio garbiak |                                  |                                   | 8.433.636,61                          |
| b) Ekitaldiko finantzazio desbideratze negatiboak                                                  |                                  |                                   | 66.789,63                             |
| c) Ekitaldiko finantzazio desbideratze positiboak                                                  |                                  |                                   | 611.825,06                            |
| <b>4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)</b>                                                             |                                  |                                   | <b>7.888.601,18</b>                   |
| <b>AURREKONTU EMAITZA DOITUA (3+4)</b>                                                             |                                  |                                   | <b>7.766.832,30</b>                   |

Aurrekontu emaitza doitua 7.766.832,30 eurokoa da, positiboa. Ikur hori eta zenbateko hori aurreko urteko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinekin (GODG) finantzaturako aintzatsitako obligazioen (AO) doikuntzak eragiten ditu, bai eta 2022 ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa desbideratzeen doikuntzak ere.

### KREDITU GERAKINAK

21/2003 Foru Arauaren 32. artikuluan dagozkien aurrekontuetako gastu orrien barneko ordainketa kredituen saldo gisa definitzen dira kreditu gerakinak, betiere aintzatetsiak diren obligazioen menpean ez badaude. Honako hauek osatzen dituzte kreditu gerakin horiek; disposizioen saldoak, haxe da, erabilitako edo konprometitutako gastuen eta AOren artean dagoen aldea, **konprometitutako kreditu gerakinak** izango liratekeenak; eta baimenen, kreditu atxikien saldoak eta erabili gabeko saldoak, **konprometitu gabeko kreditu gerakinak** izango liratekeenak.

21/2003 Foru Arauaren 32. artikulua xedatutakoaren arabera, Kreditu Gerakin guztietatik ondoko hauek soilik txeratu ahal izango dira justu hurrengo ekitaldian, baldin eta horretarako nahikoa finantza baliabide badaude:

- Transferentzia baimenduaren eta onartutako kreditu gehigarrien xede izan diren kredituak, bi kasuetan, ekitaldiko hiruhilekoan emanak direnean.
- Erabilitako gastuei dagozkien kredituak, arrazoi justifikatuak izanda obligazioa hartu ezin denean. Disposizioen saldoak dira, haxe da, D fasean dauden kredituak.
- Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren mendeko beste kreditu batzuk.
- Kapital eragiketen ondoriozko kredituak, berdin dio baimenduta edo konprometituta dauden.

Ezin izango dira txertatu ez erabilgarri deklaratu diren kredituak eta aurreko ekitaldian jada txertatutako kreditu gerakinak, helburudun sarreraren bitartez finantzatzeko diren kapital eragiketak direnean salbu. Horrenbestez, lotutako sarrerekin finantzatutako proiektuak babesten dituzten kreditu gerakinak izan ezik, horiek nahitaez txertatu behar baitira, txertatzea erabakitzen den aurrekontu ekitaldiaren barnean bakarrik aplikatu ahal izango dira kreditu gerakinak.

Azkenik, 1/203 Foru Arauaren 7.1 artikulua xedatutakoaren arabera: *“Aurrekontu likidazioak gastu orokorretarako diruzaintza gerakin positiboa ekarri gero, gerakin hori zor bizia murrizteko edo zorpetze eragiketa gehiago saihesteko erabiliko da”*.

Hala ere, 7. artikuluen 2. atalak aukera ematen du, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinik izanez gero, kreditu gerakinen txertaketaren ondoriozko aurrekontu aldaketak finantzatzeko erabili ahal izateko. Izan ere, haxe xedatzen du aipaturiko artikulua horrek: *“Dena den, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinik izanez gero, kreditu gerakinen txertaketak finkatzeko erabili ahal izango da”*.

## **DIRUZAINZAKO GERAkinAK**

Toki erakundearen likidezia soberakina azaltzen duen magnitudea da Diruzaintzako Gerakina.

Kreditu gabeko eskubideek, ordaindu gabeko obligazioek eta funts likidoek osatzen dute diruzaintzako gerakina, guztiak ere ekitaldiko abenduaren 31ri dagokionez, egon daitezkeen lotutako sarrerak aintzat hartuta eta kobragaitzat edo kobraezintzat hartzen diren kobratu gabeko eskubideak murriztuz kuantifikatuak.

### **Kobragaitzak edo kobraezinak diren kobratu gabeko eskubideak:**

Kobratzeko zailak edo ezinezkoak diren kobratu gabeko eskubideei dagokienez, haxe xedatzen du 21/2003 Foru Arauaren 48.6 artikulua: *“Eskubide kobragaitzak edo kobraezinak zehazteko, zorren antzintasuna, haien zenbatekoa, zein sarrera mota den, hala borondatezko epeko nola betearazpen bideko bilketaren ehunekoak eta toki erakundeak ezarriko dituen gainerako*

balioeste zuhurraren irizpideak ere hartu beharko dira kontuan. Dena dela, behar bezala aintzatetsi eta kontuan hartu eta 24 hilabete baino gehiagoko antzinatasuna duten eskubideak kobragaitzat edo kobraezintzat hartuko dira, behar bezala bermatuta egon eta likidatu eta hurrengo ekitaldian kobratzea aurreikusten bada izan ezik, orduan ez baitira eskubide horiek kendu beharko”.

#### 4. Koadroa. Kobragaitzak edo kobraezinak diren kobratu gabeko eskubideak

| GAUZATZEA ZAILA EDO EZINEZKOA DEN ESKUBIDEEN KALKULUAREN LABURPENA, I, III, V ETA VI KAPITULUAK |                     |                   |                     |                     |                     |                     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|-------------------|---------------------|---------------------|---------------------|---------------------|
| KONTZEPTUA                                                                                      | SALDOAK 2022/12/31n |                   |                     |                     |                     |                     |
|                                                                                                 | 2020 eta aurrek.    | 2021              | HONDAKINAK          | 2022                | GUZTIRA             | BERANKORTASUNA      |
| Hiri OHZ                                                                                        | 143.253,63          | 59.113,55         | 202.367,18          | 159.741,64          | 362.108,82          | 251.215,39          |
| Ibilgailuak                                                                                     | 166.659,78          | 56.074,89         | 222.734,67          | 72.933,80           | 295.668,47          | 231.156,48          |
| Gainbalioak                                                                                     | 343.470,34          | 115.332,46        | 458.802,80          | 278.307,49          | 737.110,29          | 454.607,29          |
| JEZ                                                                                             | 177.109,02          | 64.344,18         | 241.453,20          | 63.089,79           | 304.542,99          | 261.277,78          |
| EIOZ                                                                                            | 10.823,91           | 39.900,34         | 50.724,25           | 141.255,63          | 191.979,88          | 76.330,40           |
| Ekitaldi Itxien Itzulketa                                                                       | 6.198,75            | 0,00              | 6.198,75            | 0,00                | 6.198,75            | 6.198,75            |
| Isunak                                                                                          | 503.313,84          | 262.288,38        | 765.602,22          | 176.025,00          | 941.627,22          | 705.964,09          |
| Hirigintza dirusarrerak                                                                         | 0,00                | 55.701,27         | 55.701,27           | 29.288,32           | 84.989,59           | 53.735,71           |
| Obra Lizentzien tasa eta beste                                                                  | 76.445,77           | 4.462,28          | 80.908,05           | 208.793,76          | 289.701,81          | 101.590,87          |
| <b>Guztira</b>                                                                                  | <b>1.427.275,04</b> | <b>657.217,35</b> | <b>2.084.492,39</b> | <b>1.129.435,43</b> | <b>3.213.927,82</b> | <b>2.142.076,76</b> |

B-1

B-1

Beste kapituluaren berankortasuna (Ivtik VIIra)

81.188,22

Udalaren gaineko berankortasuna

2.223.264,98

Horrenbestez, zalantzazko kobrantza duten saldoen zenbatekoa 2.223.264,98 eurokoa da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin txikiagoa sortuz 2022ko ekitaldiko likidazioan.

#### Lotutako diruzaintzako gerakina:

Lotutako diruzaintzako gerakina metatutako finantzaketa desbideratze positiboek osatzen dute. Lotutako diruzaintzako gerakina 1.539.930,08 euro dira, eta lotuta dauden gastuak finantzatzeko baliabidea izango da diru hori.

#### Diruzaintzako gerakina guztira:

Guztizko diruzaintzako gerakina (ikus koadroa) 61.957.354,58 eurokoa da. Doikuntzen ondoren, 58.194.159,52 eurokoa da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin positiboa.

#### 6. koadroa. Diruzaintzako gerakinaren egoera

| Kontu zk.                                                           | Osagaiak                                                       | 2022          | 2021          |
|---------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|---------------|---------------|
| 57                                                                  | 1. (+) Funtz likidoak                                          | 60.919.789,67 | 59.585.559,10 |
|                                                                     | 2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak                            | 3.988.220,75  | 5.103.069,08  |
| 430,433,437,438                                                     | -(+) Indarreko Aurrekontukoak                                  | 1.822.302,60  | 3.251.437,54  |
| 431,434,439                                                         | -(+) Aurrekontu itxietakoa                                     | 2.165.680,61  | 1.851.394,00  |
| 440,442,449,456,470,471,472,548,550                                 | -(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetakoa                    | 237,54        | 237,54        |
|                                                                     | 3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak                          | 2.950.655,84  | 2.614.518,20  |
| 400                                                                 | -(+) Indarreko aurrekontukoak                                  | 1.971.648,08  | 1.663.329,02  |
| 401                                                                 | -(+) Aurrekontu itxietakoa                                     | 12.466,58     | 11.989,98     |
| 165,166,180,185,410,414,419,453,475,476,477,502,515,516,521,560,561 | -(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetakoa                    | 966.541,18    | 939.199,20    |
|                                                                     | 4. (+) Aplikatzeko dauden partidak                             | 0,00          | 0,00          |
| 554,559                                                             | betiko aplikatzeko dauden egindako kobratetarako               | 0,00          | 0,00          |
| 555,5581,5585                                                       | behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordaintetarako        | 0,00          | 0,00          |
|                                                                     | I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 - 3 + 4)              | 61.957.354,58 | 62.074.109,98 |
| 4900,4901,4902,4903                                                 | II. Kobrantza zalantzagarriko saldoak                          | 2.223.264,98  | 2.017.966,69  |
|                                                                     | III. Gehiegizko finantzaketa lotua                             | 1.539.930,08  | 996.427,22    |
|                                                                     | IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I - II - III) | 58.194.159,52 | 59.059.716,07 |

21/2003 Foru Arauaren 49. artikulua arabera, Toki erakundeek aurrekontu orokorren likidazioari buruzko dokumentazioa hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen prestatu behar dute. Aurrekontu Orokorren Likidazioa Toki Erakundeko Buruak onetsiko du, kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta gero Udalbatzari emango zaio haren berri.

Likidazioa onartutakoan, haren kopia Foru Aldundira bidali beharko da onartu ondoko hilabetea bukatu baino lehen. Foru Aldundia arduratuko da eskumena duten administrazioetara bidaltzeaz.

#### **ONDORIOA:**

Kontu-hartzaileak honek jakinarazten du Hondarribiko Udalaren 2022ko Aurrekontuaren likidazioa 21/2003 Foru Arauak aurreikusitakoaren arabera egin dela.

Hori da gai honi dagokionez Kontu-hartzaileak honek jakinarazi behar duena, zuzenbidean oinarri hobea duen beste edozein irizpideren mende, eta betiere eskumena duen udal Organoaren esku uzten dena, interes publikorako egokientzat hartzen duena erabakiko baitu hark.

**Elektronikoki sinatutako dokumentua**